



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Esku artean dugun proiektua aurrera eramateko partaide garen pertsonon hainbat baliabide kontuan hartuko ditugu eta horrez gain, elkarte ezberdinen zerbitzua edota elkarlana aurreikusten dugu. Zerbitzu hau optimizatzeraz bidean gure baliabide eta abileziak batzeaz gain, inguruko aditu zein gertuko elkarteekin harremanetan izango gara.

Harremanak izango ditugun elkarteak honakoak izango dira:

- **Aranzadi:** Natura errespetatzen eta lantzen lagunduko digute elkarte honetan lan egiten duten langileek. Gure helburu nagusienetako bat naturarekin harreman zehatza izatea da, hori modu egokian lantzeko aditu hauen laguntza jasoko dugu.
- **Udalak eta eskolak:** Udalaren eremua denez, alokairua ordaindu behar diogu eta beraiek espazio hori utziko digute. Eskolaren bidez, harremanetan jarriko gaituzte familiekin eta hezitzaileekin.
- **Goierri Kooperatiba:** Enpresa honen produktuak beharrezkoak ditugu (baratzerako tresnak esaterako) eta eskualdeko kooperatiba denez, baliabideak eskuratzeko harremana izango genuke.
- **Onargi aplikazioa:** Onargi aplikazioaren bidez eta bertako adituen laguntzari esker, elikadura osasungarri bat sortuko dugu gure bezeroentzako eta bitartean, gure bezeroak beraien aplikazioa ezagutzeko publizitatean egingo dugu.
- Gure produktua aurrera eramateko baliabideen artean, badiralehiakideak ez diren eta gure produktua aurrera eramateko funtsezkoak diren hainbat enpresa-mota ere, horien artean: **Iztueta** esnetegia eta **Alarpe** zalditegia.



- **Oiangu txikiko baserria:** Oiangu baserriko espazioa eta animaliak zainduko ditugu, eta trukean gure hezigunera etortzen diren pertsonak ikusteko aukera izango dute.

Egitasmo honek beharrezko dituen gaitasunak honakoak dira:

- **Psikopedagogoak:** Bi psikopedagogo izango ditugu gurekin lanean. Beraien ezagutza partekatuko digute hezigunea ahalik eta egokiagoa izateko bai haurrentzat, bai familientzat eta baita hezitzaileentzat ere.
- **Hezitzaileak:**
 - Aitor Rodriguez kirola, yoga... eta beste hainbat kirol burutzen ditu eta horregatik erraztasuna izango du kirolarekin lotutako txangoak diseinatzeko.
 - Mikel Garmendiak, ekonomiaren arloa menperatzeaz gain, administrazioaz arduratuko da.
 - Oihane Pelaezen kasuan, Naturarekin harremana du eta Aitorrekin batera tailerrak eta txangoak diseinatuko ditu.
 - Ihintza Garmendiaren kasuan, erakunde ezberdinekin, adituekin... bitartekaritza egingo du.
 - Azkenik Eider Lasak, Teknologia erabili eta ulertzeko gaitasuna du, horrez gain diseinuaren mundua ezagutzen eta menperatzen du.



- **Adituak:** Hainbat gaietan adituak diren pertsonak ekarriko ditugu formazioak emateko. Formazio hauek familientzako eta batez ere hezitzaileentzako bideratuta egongo dira.

Amaitzeko, proiektuak aurrera egin dezan beharrezkoak ditu bezeroak eta arrisku faktore bat ikusi dugunez, honi aurre egiteko edo arriskuak murrizteko bazkide formatoa ezarriko genuke.